

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### **Tokiko gobernu batzarra sortzea eta eratzea, eta alkatearen eskuordetutako eskuduntzak**

Asparreneko Udalbatzak, 2019ko uztailaren 9ko osoko bilkura berezian, erabaki zuen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23. artikuluan xedatutakoaren babespean, tokiko gobernu batzarra sortzea, alkateari laguntzeko bere eskuduntzak gauzatzen, bai eta alkateak, udaleko beste organoren batek edo legeek batzarrari berari eskuordetuko dizkionak gauzatzen ere.

Bestalde, alkatearen beheko datako ebazpen bidez, Asparreneko tokiko gobernu batzarreko kide izendatu dira Inmaculada Albizu Fuentes, Gotzon Lopategui Meabeanzorena eta Daniel Sánchez Vega zinegotziak, hirurak Asparreneko EH-Bildu udal taldekoak, eta alkateak erabaki du tokiko gobernu batzordeari eskuordetzea honako eskuduntza hauek:

1. Udalaren zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
2. Onetsitako aurrekontuarekin bat etorritik, ekonomia kudeatzea eta bere eskumeneko gastuak egitea, ordainketak agintzea eta kontu ematea.
3. Enplegu publikoaren eskaintza onestea, udalbatzak onetsitako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorritik; baita ere langileak hautatzeko proben oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketak; horrez gain, finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
4. Langileen izendapenak eta zehapenak erabakitzea, salbu korporazioko funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan kontratudun langileak kaleratzea.
5. Planeamendu orokorra garatzeko tresnak onestea, udalbatzari berariaz esleituta ez badaude; bai eta hirigintza kudeatzeko tresnak eta urbanizazio proiektuak ere.
6. Berak emandako aginduak bete ez dituztenei edo udal ordenantzak hautsi dituztenei zigorrak jartzea, zigorrak jartzeko ardura beste organo batzuek duten kasuetan izan ezik.
7. Obra eta zerbitzuen proiektuak onestea, baldin eta eskumenik badu horiek kontratatu edo emateko eta aurrekontuetan jasota badaude.
8. Era guztietako kontratazioak eta emakidak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duenak, xedapen gehigarrietatik bigarrenen ezarritako mugen barruan, salbu administrazio kontratazioari buruzko legedian ezarritako kontratu txikiak, 500 eurotik beherakoak direnak.
9. Eskubide eta ondasunak eskuratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak xedapen gehigarrietatik bigarrenen ezarritako mugen barruan.
10. Baimenak ematea, nola eta sektoreko legeek ez dioten ahalmen hori berariaz udalbatzari ematen.

Tokiko gobernu batzarra astean behin bilduko da, astelehenetako 09:00etan, hain zuzen ere.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Araia, 2019ko uztailaren 15a

*Alkatea*

**CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ**